

38/2000 DEKRETUA, otsailaren 29koa, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak –Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak– abiapuntu gisa zehazten duenez, Euskadiko herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak hitzez zein idatziz jakin eta erabiltzeko eskubidea, eta, horren ondorioz, hizkuntza-arloko oinarrizko zenbait eskubide aitortzen die. Ildo horretan, eskubideok asebetetzeko, aipatutako legeak botere publikoen esku jartzen du herritar guztiek administrazioarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzea eta bitarteko egokiak jartzea. Arau horrek, orobat, herritarrei aitortzen die badutela eskubidea nahi duten hizkuntza ofizialean harrera egin diezaieten. Bestalde, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko lur-eremu osorako hizkuntza idatzi ofiziala denez, arauak ezartzen du botere publikoei dagokiela euskararen batasunaz eta normalizazioaz arduratzea.

Lege-esparru horretan, itzulpena da herritarren hizkuntza-eskubideak asebetetzeko oinarrizko zutabeetako bat, betiere, langile publikoek beren eginkizunak betetzeko duten hizkuntza-gaitasuna alde batera utzi gabe. Euskaratik edo euskarara itzultzeko jardunaren gaiak, horregatik, tratamendu sistematikoa behar du, ikusmira integral eta orokorretik planteatuta, eta erabili beharreko kudeaketa-ereduak bat egin behar du hizkuntza-politikarekin. Itzulpengintzak eragin handia duenez euskararen erabilera eta, gainera, euskara normalizatzeko elementua ere badenez, jardun horrek tresna-izaera garrantzitsua ematen dio Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari, eta garrantzi horren lekuko zerbitzua sortzeko modua bera da; izan ere, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak –Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak– 12. artikuluan emandako aginduaren ondorioz sortu zen delako zerbitzua. Beraz, azken batean, delako legea garatzeko arau gisa hartu behar da Itzultzaile Zerbitzuaren arautzea, legearen aplikazio orokorrean kokatuko dena, hizkuntza-politikan hain zuzen ere.

Euskara erabiltzeko eta normalizatzeko tresna-izaera horrek, bestalde, indar handiagoa hartzen du administrazioan bertan; izan ere, euskararen koofizialtasuna dela-eta, administrazio barruko hainbat eta hainbat agiri elebitan edo euskara hutsez idatzi beharra alde batera utzi gabe, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak funtsezko eginkizuna du, batetik, euskarazko lege- eta administrazio-hizkera modernoa sortu, estandarizatu eta hedatzeko eta, bestetik, lege- eta administrazio-terminologia finkatzeko, nahiz eta azken egiteko hori euskararen corpusa finkatzeko esparru orokorrean burutu behar den.

Itzulpengintzak eta herri-administrazioak beren artean duten harreman berezia dela-eta, ezinbestekoa da, gainera, bi eremu elkarri lotzea: bat, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren egitekoa eta, bi, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak ezarritako irizpideak. Delako plana, hain zuzen ere, funtsezko atala da hizkuntza normalizatzeko helburuak bete daitezen, eta batez ere, jakiteko zein dokumentu sortu behar diren euskaraz edo elebitan, eta zein nolako parte-hartzea izango duten hizkuntza-gaitasuna duten funtzionarioek.

Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, 1998-2002 aldirakoak, hainbat neurri planteatzen ditu. Besteak beste, honako hauek: hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak, hain zuzen ere administrazio-atal elebidunak zehazten diren neurrian arian-arian ezarriko direnak; eta itzulpen-irizpideak, erabilerajarraibideen osagarriak izateaz gain, jarraibideekin bat egin behar dutenak. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak ezartzean, zehatz agertuko da zein diren itzulpen-beharrak eta, azken batean, zein lan dagokion Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari eta zein Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioan itzultzen diharduten langileei.

Dena dela, itzultzaileen jardun-eremuari dagokionez, berariaz adierazi behar da bereziak direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren xedapenak eta egintzak; izan ere, aldizkari ofiziala arautzen duen 155/1993 Dekretuak, ekainaren 1ekoak, 5. artikuluan dioenez, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen diren testuak ofizialtzat eta benetakotzat jotzen dira biak. Testuok, aldizkarian txertatzean, jendaurreko izaera eta ofizialtasuna hartzen dituzte eta administrazio-hizkera finkatzen laguntzen dute; baina hori ez ezik, bertan argitaratzeko, bermatu ere egin behar da itzulpena zehatza eta juridikoki baliokidea dela.

Ezin da ahaztu, bestalde, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 12.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta herri-erakundeek Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala erabil dezaketela itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa bermatzeko. Ondorioz, zerbitzuari definizio berria ematean, ezin zaio barne-izaerari bakarrik begiratu, alegia, administrazio-ekoizpen idatzia itzultzeko zerbitzuaren izaerari bakarrik; izan ere, kontuan hartu behar da kanpora begira zerbitzu publikoa ere badela, bera baita, legeak hala aginduta, itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa ziurtatzeko organoa.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, beharrezkoa eta komenigarria da itzulpen-arloko agintaritza nagusi bakarra izatea. Horrek ezinbestez dakar oraingo Itzulpen Zerbitzu Ofiziala berriro definitzea, hain zuzen ere, batetik, dagozkion eskumenak eta eginkizunak ezartzeko eta, bestetik, itzultzearekin zerikusia duten gainerakoekiko harremanak finkatzeko. Horrela, itzultzen diharduten langileak antolatuz eta hizkuntza-gaitasuna duten funtzionarioen jarduera elebidunak bultzatuz, itzulpen-zerbitzu eraginkorra eskaintzeaz gain, administrazio-hizkeraren homogeneitatea bermatuko da.

Organo berean itzulpen-arloko agintaritza nagusi bakarra eta itzulpen-zerbitzuak biltzeak bera-ekin dakar beren arteko harreman funtzionalak zehaztea, alegia, zein nolako harremanak izango diren Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren eta itzultzen dihardutenen artean. Horregatik, itzulpengintzarekin zerikusia duten lanpostuen beharrezko homogeneizazioa ahaztu gabe, eta lanpostu horiek hizkuntza-normalkuntzan dihardutenetatik bereiztu behar direla ahaztu gabe, hierarkiari dagokionez eredu deszentralizatua aukeratu da, hurbiltasuna, antolamendua, espezializazioa eta isilpekotasuna direla-eta; eginkizunei dagokienez, berriz, ezinbestekoa da Itzultzaile Zerbitzu Ofizialarekiko mendekotasun funtzionala ezartzea itzultzen diharduten langileei, eta, ondorioz, behar diren koordinazio-mekanismoak aurreikusiko dira zerbitzua antola dadin.

Hala ere, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren eskumenak beste erakunde batzuetara ere iristeko, beste herri-administrazioen barruan euskaratik eta euskarara egiten diren itzulpenen langintza koordinatzeko –arloko agintaritza nagusi bakarraren ahalmenak erabiliz– eta euskarazko lege- eta administrazio-hizkera normalizatu, batu eta garatuko dela bermatzeko, ezinbestekoak dira, bada, adostasun- eta lankidetzabideak; izan ere, kontuan hartu behar da administrazio horietako bakoitzaren espezifikoa dela, eta, gainera, euskara hizkuntza ofiziala dela Nafarroako Foru Erkidegoan ere.

Azkenik, nahiz eta Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala aparteko zerbitzu gisa egituratu, zerbitzua bera nahitaez kokatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren antolamendu-egituraren barruan. Horretarako, bidezkoena da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari atxikitzea; izan ere, uztailaren 27ko 16/1983 Legeak –Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzkoak– ezartzen duenarekin bat, erakunde horren eginkizunetako bat da euskara herri-administrazioan sartu, hedatu eta normalizatzea, bai eta administrazio-hizkera finkatzea ere, hala ezartzen baita Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legean.

Ondorioz, Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eginez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko otsailaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Dekretu honen helburua da, bateko, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren eskumenak eta eginkizunak arautzea, eta, besteko, zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioan itzultzen diharduten langileekiko duen harreman funtzionalaren eredia ezartzea.

2. artikulua.– Eskumenak.

1.– Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak eskumena du euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzen diren testuen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa bermatzeko.

2.– Bere eginkizuna da, halaber, arloko agintaritza nagusi bakarra den neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioan euskarara eta euskaratik gaztelaniara egiten den itzulpen-langintza koordinatzea. Zerbitzuari dagokio, orobat, euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz lege- eta administrazio-terminologiaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea. Horiez gain, eremu hauetako lankidetzak bultzatuko du beste herri-administrazio, erakunde publiko eta pribatuekin.

3. artikulua.– Eginkizunak.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, bere eskumenez baliatuz, honako eginkizunak izango ditu:

a) Itzulpen-, interpretazio-, ziurtatze- eta terminologia-zerbitzuak ematea, ondoko artikuluan adierazten denarekin bat.

c) Euskarazko lege- eta administrazio-terminologia bildu, hustu, fitxatu eta aztertzea, bai eta glosarioak, terminologia-hiztegiak eta abar prestatu eta argitaratzea ere.

d) Itzulpengintzako eta euskarazko lege- eta administrazio-terminologiako jarraibide teknikoak prestatzea.

e) Administrazioaren lanean ohikotasunez eta aldian-aldian sortzen diren administrazio-dokumentuak, inprimaki-ereduak, idazkiak edo komunikazioak –testu-zati handi bat guztientzat berdina edo aldaezina dutenak–, hizkuntza bietan estandarizatzea; multzo honetan sartzen dira, besteak beste, ofizioak, ohiko jakinarazpenak, gonbiteak, ziurtagiriak, iragarkiak, zenbait agindu edo ebazpen eta abar. Horren helburua izango da, bada, terminologia zuzentzea eta egokitzea, bai eta administrazio-hizkera erabiltzeko irizpideak aplikatzea ere.

f) Itzultzen diharduten langileei eta, oro har, euskaraz idazten duten langileei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea.

g) Euskara idatziaren erabilera errazten duten informatikako programak, datu-baseak eta beselako tresnak ezarri eta garatzea.

h) Itzultzen diharduten langileen prestakuntza eta hobekuntza lortzeko planak eta programak lantzea; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango langile bakoitza atxikita dagoen herri-administrazioaren eskumenetarako eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Prestakuntza Zerbitzuaren eskumenetarako.

i) Itzulpengintzaren eta euskarazko lege- eta administrazio-terminologiaren arloko lankidetzaren eta laguntza-hitzarmenak eta akordioak ondoko hauekin egitea proposatzea: Estatuko Administrazio Orokorra eta Erakunde Administrazioarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin, lurralde historikoekin eta toki-korporazioekin.

j) Erakundeko liburutegiarekin eta dokumentazio-zentroarekin koordinatuta, zerbitzuaren esku-menekoak diren gaien buruzko bibliografia eskuratzeko politika zehaztea.

k) Zerbitzuan zehaztu diren prozesuak sistematikoki berrikusi eta ebaluatzea.

l) Ordenamendu juridikoak esleitutako beste edozein.

4. artikulua.– Zerbitzuak ematea.

1.– Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, bere eginkizunen baitan, honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

a) Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen-zerbitzuak.

Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden administrazio publikoek eskatuta itzuli eta egiaztatuko dituzte testuak, eta itzulpenak zuzenduko.

Testua sortu duen pertsona pribatuarekin berariaz hala hitzartzen denean, hedapen handikoak edo interes publikokoak izateagatik era berezian landu behar diren testuak itzuliko dituzte.

b) Interpretazio-zerbitzuak, euskarara eta euskaratik gaztelaniara.

Oro har, kide anitzeko administrazio-organoetan, bilera ofizialetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek antolatzen dituzten biltzar edo jardunaldietan egiten diren berbaldiak interpretatzea dagokio.

Bereziki, honako saio hauek interpretatu beharko dituzte euskarara eta euskaratik gaztelaniara: hitzezko jardun judizialak, hala nola epaialdiak, kareoak, lekukoaren aitorpenak edo bestelakoak, baldin eta organo juridikozionalak –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren bitartez– hala eskatzen badute.

c) Ziurtatze-zerbitzuak.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta herri-erakundeek Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala erabili ahal izango dute euskarara edo euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa ziurtatzeko.

Bereziki, besteek eskatuta, euskaratik gaztelaniara eta alderantziz egindako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasuna ziurtatu beharko dituzte, baldin eta edozein herri-administrazio, organo juridikozionalak edo erregistro publikoak, fede publikoa emateko, hala eskatzen badite.

Era berean, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egiaztatu beharko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren agiri guztiak –besteak beste, xedapen, egintza, akordio, txosten, agiri, iragarki eta jakinarazpenak– zehatzak eta baliokideak direla bertsio bietan, euskaraz eta gaztelaniaz.

d) Terminologia-zerbitzuak.

Oro har, euskarazko lege- eta administrazio-hizkera eta -terminologiarekin zerikusia duten kontsultak jasotzeko erantzungaroak izango dituzte; eta terminologiako lan-tresnak –terminologia-bankuak, glosarioak eta bestelakoak– eskainiko dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan itzultzen diharduten langileei.

e) Arau-testuen idazketa elebiduneko zerbitzuak.

Arau-testuak bi hizkuntzetan idazteko formula hauek eskainiko ditu:

– Itzulpena Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko itzultzaile batek egitea eta gai horretan eskumenduna den sail edo erakunde autonomoak izendatutako teknikari-legelari elebidun batek zuzendu eta gainbegiratzea.

– Arauaren hizkuntza bateko bertsioa gaian eskumena duen saileko teknikari-talde batek egitea, eta beste hizkuntzako bertsioa sail horrek izendatutako teknikari-legelari elebidun batek edo gehiagok idaztea; ondoren, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egiaztatuko du bi bertsioak zehatzak eta baliokideak direla.

– Testua korredakzioan edo aldi berean idaztea bi hizkuntza ofizialetan. Bi bertsioak itzultzaile batek edo gehiagok, hizkuntza-teknikari eta idazle gisa, eta teknikari-legelari elebidun batek edo gehiagok osatutako talde batek egingo ditu. Horiek guztiak Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak izendatuko ditu, arau-ekimenaren ardura duen sailaren adostasunarekin.

Arau-testuen idazketa elebiduneko zerbitzuak prestatzeko, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak arau-testuen idazketa elebiduneko formuletan parte har dezaketen pertsonentzako gaikuntza-ikastaroak deitu ahal izango ditu.

2.– Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, nolnahi ere, bere gain hartuko ditu eskatzen zaizkion itzulpen-, interpretazio-, ziurtatze- eta terminologia-zerbitzuak, nahiz eta aurreko paragrafoetan jasota ez egon, betiere, zerbitzu ofizialak, aurretiaz, zerbitzuok ematea onartu badu.

5. artikulua.– Itzulpen-lanetan diharduten langileekiko harremana.

1.– Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, dagokion arloko agintaritzaren funtzional eta organiko zentralizatu bakarraz baliatuz, euskaratik gaztelaniarako eta gaztelaniatik euskararako itzulpenaren arloko eta lege- eta administrazio-terminologiaren arloko arau, erregela eta prozedura orokorrak eta jarraibide teknikoak ezarri ahal izango ditu, baita idazketa elebidunaren arlokoak ere, eta itzultzaile guztiek bete beharrekoak izango dira.

2.– Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko arduraduna buru dela, lan-talde bat osatuko da honako eginkizun zehatz hauekin: batetik, itzulpen-arloko eta euskarazko lege- eta administratioterminologiaren arloko arau, erregela, prozedura eta jarraibide teknikoak proposatzea eta, bestetik, administrazioen arteko proiektuak eta erakunde publiko eta pribatuen arteko esperientzia-trukea bultzatu eta sustatzea, gai jakin batzuk behar bezala aztertze. Lan-taldean, itzultzen diharduten langileek hartuko dute parte.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Herri-baltzuak eta zuzenbide pribatuko herri-erakundeak.

Euskararako eta euskaratik gaztelaniarako itzulpen-zerbitzuen homologazioa aplikatzeko eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Administrazioeko zuzenbide pribatuko herri-erakundeetara eta herri-baltzuetara ere hedatzearen aurka joan gabe, erakunde eta baltzu horiek Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ezarritako jarraibide teknikoetara egokitu beharko dute itzulpeneko eta euskarazko lege- eta administrazio-terminologiako beren jarduna.

Bigarrena.– Itzultzen diharduten langileen lanpostuak homogeneizatzea.

Dekretu hau indarrean sartzen denetik sei hileko epean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzaren laguntzarekin, itzulpengintzarekin

zerikusia duten lanpostuak homogeneousizatzeari ekingo dio. Horretarako, zehaztu egingo dira lanpostu bakoitzerako baldintzak, bete beharreko eginkizunak, sailkapena, lanpostu bakoitzaren balorazioa; eta hizkuntza-normalkuntzako lanpostuetatik bereiziko dira. Zehaztapen horien barruan sartuko dira, orobat, bai bakoitzaren mendekotasun-mota, alegia, funtzionala ala hierarkikoa, bai bete beharreko eginkizunak, eta, hori guztia, bat eginda, bateko, dekretu honek ezartzen duenarekin, besteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak ezarriko dituen irizpideekin eta, azkenik, plana garatuko duten arauekin. Sailak, azkenean, lanpostu horien zerrenda aldatzea proposatuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hirugarrena.– Erakundeen arteko lankidetzak.

Euskarazko administrazio-hizkera eta lege- nahiz administrazio-terminologia batu, normalizatu eta garatzeko arloan, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egiten duen jarduna, eta arlo horietan beste herri-administrazioekin eta erakunde publiko zein pribatuekin burutzen den lankidetzak, gizartearen hainbat esparrutako euskararen corpusa finkatzeko esparru orokorrean gauzatu beharko dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango Kultura Sailak eta Euskararen Aholku Batzordeak arlo horietan dituzten eskumenetarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Arauen aldaketak

1.– Paragrafo berri bat gehitu zaio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuaren 11. artikuluari. Hona testua:

"4.– Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko igortzen diren testuak txertatzeko baimenak, hizkuntza bietako edukia bera dela bermatzeaz gain, itzulpenaren zehaztasuna edo baliokidetasuna ziurtatzen duen agiria ere eraman beharko du berarekin. Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala izango da agiri hori emateko organoa, nahiz eta testuen estiloa, betiere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko estilo-arauetara egokitu beharko den. Igorritako testuak ez badakar berarekin horrelako ziurtagiririk, edo hizkuntza ofizialetako bakar batean idatzita badago, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko itzultzaileei egokituko zaie testua itzultzea –betiere Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren arau, erregela eta jarraibide teknikoaren arabera–, edo, itzulita daudenean, itzulpena egiaztatu eta zuzentzea."

Bigarrena.– Arau bidez garatzea.

Baimena ematen zaio Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari dekretu hau garatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko otsailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.